



ERRETIRO PARTZIALA

.....

2012rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legean agertzen diren gastu publikoa murrizteko neurrien artean, txanda kontratua formalizatzeko erabakia jasotzen da (19.artikuluko 11. paragrafoko laugarren lerrokadan). Honetan argi jartzen du **txanda kontratuak beraien aplikazioan etenda geratzen direla, gastuaren jaitziera suposatzen dutenak izan ezik. Honek esan nahi du, momentuz, erretiro partziala eskatzeko aukera mantentzen dela.**

Erretiro partziala hartu nahi izango duten langileen eskaerak Administrazioak kasuz kasu aztertuko ditu eta pertsonalgorako gastuetan kostu ekonomikoa txikiagotzea suposatuko dutenak onartuko ditu.

Aurten ez da egongo, beste ikasturteetan bezala, deialdi ofizialik. Beraz, norberak, 2012 urterako erretiro partziala hartzeko baldintzak beteko duenean bere eskaera pertsonala egin beharko du.

Baldintzak hauek dira:

- 60 urte + 8 hilabete betetzea.
- Enpresan gutxienez 6 urteko antzintasuna izatea.

Eskaera hau **Lakuan aztertuko da eta hor erabakiko dute onartzen den ala ez.**

STEE-EILASetik gure desadostasuna azaldu nahi dugu, bai Eusko Jaurlaritzak gure lan baldintzetan inposatu dituen murrizketekin, bai errekursoak kudeatzeko era honekin, hain gardetasun gutxirekin eta irizpide objetiborik gabe.

ERRETIRO DUINAK HEZKUNTZAN!!!



ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945144302	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944101360	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20006 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943453627	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948270048	navarra@stee-eilas.org
